

Oharra



Nagusia 7ko 1. solairuan Udalak duen etxebizitza errentan ematea

Nagusia 7ko 1. solairuan Udalak errentan emanda izan duen etxebizitza hutsik geratu da, eta errenta arautuko duten oinarriak irailaren 18ko batzarrean onartu ziren.

Gai horretan interesaturik zaudetenok, informazio gehiago eskuratu ahal izango duzue udaletxean.



Kultur Agenda

Urria

03 Barreterapia ikastaro hasiera
urriak 31 arte. Gaztelekuan
13 Mountain-Bike travesia

Azaroa

19-25 Euskara astea
24 Gaztain jana
25 Emakumeen aurkako indarkeria eguna
30 Kantu afaria **Adi!** Talo ikastaroa azaroan zehar

Abendua

01 Talo jana
03 Euskara eguna
24 Gabon eguna
31 Urte zahar eguna

Telefono interesgarriak

Udaletxea 943 881170
• **Gizarte Langilea**
• **Udal Arkitektoa**
• **Epaitegia**

Haurreskola 943 164831
Herri Eskola 943 887704
Arbel-Aitz Elkartea 943 881339
Lurdes Janari Denda 943 885236
Arrastoa Botika 943 882148
Medikuarenean Txanda Hartzeko 943 805800

Kaxintane Taberna 606 756551
Nautiko Taberna / Izaskun Hotela

943 880012
Izaskun Ileapaindegia 943 160285

Sasieta 943 161555
Traste Zaharrak 943 161590
Taxi (Ordizia) 943 881486

itsasondo2.0

Herriko Aldizkaria (((18. zk))) Iraila-Abendua 2012

Ale honetan parte hartu dutenak honakoak dira:

Aranzadi Elkartea
Axier Bazaga
Belen Mendizabal
Danel Etxeberria
Ekaitz Arruti
Eskolako haurrak
Erkuden Mendizabal
Haizea Arruti
Haurreskolako Hezitzaileak
Iker Mendizabal
Iker Uson
Iturritxiki Guraso Elkartea
Jose Ignacio Duhau
Jose Luis Aranburu
Maite Lasa
Maixabel Garmendia
Mikel Mendizabal
Miren Aburuza
Nagore Etxeberria
Rosi Noguera
Unai Agirre
Zuberoa Jauregi

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herritik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70
itsasondo2.0@itsasondo.net

Lege gordailua: ISSN: 2171-5572
SS-297-2010

**GOGORARAZTEN DIZUEGU
HURRENGO ALEA
ABENDUAN IZANGO
DUZUTELA ETXEAN**

Paper birziklatuan egina

truke estudio graficoa

itsasondo2.0

Herriko Aldizkaria (((18. zk))) Iraila-Abendua 2012

Ikasturte berria, asmo sendoak



Herri eskola: eskola baratza
Simon Ibarguren: Zaldiak maite dituen itsasondoarra
Zaharrak berri: Berriro ere luizia!



Pasa den abuztuan ospatu genituen Andra Mari jaiak eta irailekoak ere atzean utzi ditugu. Herri giro ezin hobean datorkigu, beraz, gure artera **Itsasondo2.0**ren ale berri hau. Ohi legez, aurrerapen txiki-txo bat egiteko asmoz, herriko txikitxoek ikasturteari hasiera nola eman dioten jakitera hurbilduko gara gure eskolara. Zaldiekin zaletasun kuttuna duen herritar batengana ere gerturatu gara, eta elkarrizketen atarira jo besterik ez duzue Simon Ibargurenekin izandako solasaldiaren berri izateko. Zaldiz ala oinez, nahi bezala ezagutu ditzakezue oraingoan proposatzen dizuegun ibilaldiko inguru-bazterrak. Oraingoan Zeraingo mehatze inguruetan barrena txango eder bat egiteko gonbita luzatzen dizuegu. Aldizkariko orrialdeen artean, Itsasondoren herri historian lehengo eta oraingo kontuak biltzen dituen zaharrak berri atala topatu, eta 1982an gertatu zen eta 30 urte geroago errepikatu den harrien erorketaren berri ematen zaizue. Agenda 21 dinamika parte-hartzailea ere martxan da berriro, eta antolatzen diren deialdietan parte hartzeko deia egiten zaizue herritar guztioi, denon artean Itsasondo eraikitzen jarrai dezagun.

Kontu eta berri interesgarriak dituzue zuen zain mimo handiz egin dugun ale berri honetan. Beraz, badakizue, astindu bai aldizkaria, eta gozatu! ■



DOINUA: *Esnasaltzailearena*

*Ikasturte berria
itxura oneko
umez da beteko,
festen berotasuna
prest dagoeneko,
udako ezesoak
direla tarteko
errezeta xamur bat
ez degu kalteko
udazkenari modu
goxoz ekiteko. (Bis)*

*Harriak goitik behera
Jaso atarian
burrunda haundian
larogeita hirukoa
berrituz agian,
Zeraingo harrobien
ingurumarian
lasaitzeko bidea
oinezko ibilian
edo trote txikian
Simonen zaldian. (Bis)*

Sarrerako bertsoak

Aurkibidea

- 03. **Udaleko berriak**
- 04-05. **Eskola:** Eskola baratza
- 06-07. **Haurreskola:** Gure seme-alabekin jolastu
- 08-11. **Elkarrizketa:**
Simon Ibarguren: Zaldiak maite dituen itsasondorria
- 12-15. **Zaharrak berri:** Berriro ere luizia!
- 16. **Ongizatea:** Elikagaien bankua
- 17. **Kale inkesta:** Krisi ekonomikoa
- 18-19. **Ibilbidea:** Zerain-Zerain
- 20. **Informatika:** Birusak
- 21. **Agenda 21:** Itsasondo ekinez egina
- 22. **Aranzadi:** Murumendiko ingurua berreskuratzen
- 23-26. **Hemeroteka**
- 27. **Lorezaintza eta sukaldaritza**
- 28. **Oharrak. Kultur agenda**

Udaleko berriak

Alkatearen izendapena

Udalak ekainaren 21ean egindako batzarrean, alkate berria aukeratzeko bozketa egin zuen, eta aho batez izendatu zuen Asier Garro udal zinegotzia Itsasondoko alkate.



Nagusia 7an Udalak duen etxebizitza errentan ematea

Nagusia 7ko 1. solairuan Udalak errentan emanda izan duen etxebizitza hutsik geratu da, eta errenta arautuko duten oinarriak irailaren 18ko batzarrean onartu ziren.

Gai horretan interesaturik zaudetenok, informazio gehiago eskuratu ahal izango duzue udaletxean.

Diru laguntzak

Erakundeek egiten dituzten diru laguntza deialdietara eskaerak egiten jarraitzen dugu. Azken hiru hilabeteetako emaitzak hauek izan dira:

Foru Aldunditik jasoak	Eusko Jaurlaritzari eskatutakoak
- Haur, nerabe eta gazteei zuzendutako planak egiteko 6.904 euro emango dizkigu. 2011ko azaroan izandako euriteen ondorioz Lizardi-ko bidean izandako kalteak konpontzeko 3.571,84 euro emango dizkigu. - Herritarren partaidetza sustatzeko 3.000 euroko laguntza.	- Interes bereziko eremuetan ekintzak egiteko "Murumendi" aldean. - Ingurune naturalaren kontserbaziorako ekintzak egiteko 2012-2013an. - Udaletxeko 3. faseko berrikuntza obrak egiteko, "Erein" deialdiaren arabera. - Udaletxeko behe solairuan egiten ari diren obrak finantzatzeko, Kultura Sailari. - EVEri, udaletxeko inguratzaile termikoaren obretarako. ■


Eskola baratzea

ESKOLA BARATZEA jartzea ikasle-entzat zein aberasgarria izan daitekeen aztertu ondoren, aurreko ikasturteko Agenda 21eko Udal Foroan ikasleek Udalari egin zizkioten eskaeren artean, bat eskola baratzea martxan jartzeko lur-saila izan zen.

Udalak eskola baratzea proiektuarekin bat eginez, oso denbora gutxian gurekin harremanetan jarri eta eskola-tik gertu lur-sail bat eskaini zigun.

Gurasoen eta Udalaren artean zaborrak eta sasiak kendu zituzten, gurekin batera eremua ikusi, aztertu eta prestatzeko asmoz.

Aurreko ikasturtean zehar, Goierriko Agenda 21eko koordinatzailearekin eta beste eskola batzuetako baratze ardura-dunekin bildu ginen, informazioa jasotzeko eta beraien esperientzien berri izateko.



GOIMENEK 2011-2012 urteetan ikastetxeekin duen hitzarmenean ere parte hartzea lortu dugu.

Ikasturte honetako lehen helburua negutegi bat egitea izango da. Goimenek eskolarekin sinatutako hitzarmenari esker, % 65eko diru-laguntza emango digu negutegia egiteko eta lan-tresna batzuk erosteko.



Ikasturteko lehenengo egun haue-tan, haurrak baratzea non jarriko dugun ikustera eraman ditugu, eta handienek GURE ESKOLA BARATZEA nolakoa izan daitekeen, zer ekoitz dezakegun eta beharrezkoak izango ditugun lan-tresnen marrazkiak egin dituzte.

Bai hurrek eta bai guk oso pozik hartu dugu eskola baratzea martxan jartzeko eta aurrera eramateko erronka, eta proiektu horretan eskola komunitate osoak parte hartzea gustatuko litzaiguke.

Itsasondoko herri eskolako klaustroa


Ikasleek ekoitz ditzakegun eta beharrezkoak izango diren lan-tresnen marrazkiak egin dituzte



Jolasak, beharra nahia baino gehiago

Kaixo guztiei! Ikasturte berria hasi dugu, eta hemen dago berriz Haurreskola indarrak bilduta eta ideia berriekin! Ikasturte honen hasiera nahiko berezia da; izan ere, orain arte izan den haur kopuru txikienarekin hasi garelako, eta hezitzaileen alde-tik ere inoiz baino gutxiago: bakarra. Hori dela eta, matrikulatzeko epea zabalik dago, eta oraingoz ez da itxiko haur kopurua handi-tu arte; hau da, 15 haur izan arte, gutxi gorabehera. Beraz, haurdun edo haur jaioberri guztien gurasoak gonbidatzen zaituztet Haurreskolara etortzera, informazio gehiago nahi izanez gero. Goizeko 8:30etik 15:30ak bitartean egongo naiz zuen zain!

Hona ikasturtea hasteko ttiklik.com web-orrian aurkitu dudak artikulu interesgarria. Ea atsegina egiten zaizuen!



Beharra nahia baino gehiago

Egunean zehar haurrekin jolasteko tartea izatea elikadura bezain garrantzitsua da haren garapenerako. Hala ere, ez da lan erraza gure seme-alabekin jolastea. Gurasoentzat aspergarria da batzuetan, eta eguneroko bizitzan aparteko ahalegina eskatzen du, gero eta estres gehiago eta denbora libre gutxiago dugun garai hone-tan. Hiru urte bete arte, jolasa oso garrantzitsua da; izan ere, garai horretan haurrek ez dute horrenbeste jolasten euren artean –hasieran, txikiegiak direlako, eta, ondo-ren, gurasoak nahiago dituztelako jolasen mundua ezagutzeko. Ildo horri jarraituz, ikerketa askok erakusten dute haurtzaroan jolasa batasunaren oinarri bihurtu duten familiek nerabezaroan arazo gutxiago izan dituztela. Baina oso asmo onak eduki dai-tezke, eta jolasa erakargarri eta onuragarri nola bihurtu ez jakin.



Lehenengo urtean

Jarrera ludikoak hor daude haurra jaio-tzen denetik. 8 hilabete bete arte, gor-putza du jostailu, eta, batzuetan, baita bere arreta bereganatzen duen oso ger-tuko gauzaren bat ere. 9. hilabetetik aurrera, eskuz atzeman dezakeen guztia da jostailua, eta harengan eragin dezake-ela konturatzen denean, behin eta berriz errepikatzen ditu ekintza berak.

Gurasoen funtzioa

Gurasoek erabateko konfiantza izan behar dute haurrek jolasteko duten gai-tasunean, eta iniziatiba eskaini behar diote.

Haurrari begiratu behar diote, jolasa zertan den ulertzen duen arte. Ulertzen ez badu, imitatu.

Altuera berean jolasten saiatu behar dugu beti, nola lurrean hala mahaian.

Garrantzitsua da errespetatzea beraie-kin jolastea aurreikusi dugun denbora. Egunean zehar ordu erdi baino ez bada, horretara soilik egon behar dugu.

Beharrezkoa bada, orientabideak eman daitezke jolasean, baina inoiz ez da arau-rik inposatu behar. Ezer gutxirako balio du.

Jolasak

Imitazioa oinarritzkoa da. Minutuak igaro ditzakete soinuak, txaloak eta mugimen-du errazak errepikatuz.

Hamabi hilabete inguru dituenean, haur handiagoekin lau hankatan, ezkuta-kean eta harrapaketan jolastea gusta-tzen zaie gehien.

Pilotari arretaz begiratzen diote. Etorkizuneko jolas askotan hortxe izango dute. Pilotak nahikoa handia izan behar du, ahoan ez kabitze modukoa.

Kaxa batean gauzak sartzea eta atera-tzea oso dibertigarria iruditzen zaie, beraiei begira egonez gero batez ere, eta zuzen egindakoan euren arrakasta aitortuz.

Jostailuak

Gurasoak dira lehenengo hilabeteetan jostailurik onena, nahiz eta topikoa irudit.

Egunek aurrera egin ahala, ordura arte segundo bakarreko arreta baino merezi izan ez duten opariak euren jakingura pizten hasten dira, baina oraindik ere arin aspertzen dira haiekin.

3 urtera arte

Adin horretan, haurrek esna igarotzen duten denboraren % 60 jolasten ematen dute, edo horrela izan beharko luke, behintzat. Zehaztapen hori Espainiako Pediatria Elkarteak eginiko oharra da. Haiek diotenez, gure haurrak gero eta gutxiago jolasten dira, eta euren aisia ekintza pasiboagoekin betetzen dute: telebista eta bideojokoekin, batez ere. Adin tarte horretan, halaber, jostailuak eskura eduki arren, adinekoen presentzia ezinbestekoa da. Haurrak oraindik ez du eskatzen adin berekoen presentzia jolas-teko; espazioa eta jostailuak ere parteka-tu ahal izango ditu beste haur batzuekin, baina haiek ez dute parte hartzen bere jolasean.



Gurasoen funtzioa

Jolasek beraiek edo jostailuek garrantzia hartzen dute, baina oinarritzkoa da orain-dik gurasoek jolasari denbora zehatz bat eskaintzea.

Eurek jartzen dituzte arauak, nahiz eta berez arauak ez izan, ez baitira betetzen. Pertsona nagusia laguntzeko dago hor, ez erakusteko. Berezkotasunak afektibo-tasuna adierazten du, eta komunikazio eta errespetuzko harremanak elkartruka-tzeko bidea ematen du.

Haurrek euren jolasetan adinez nagu-siek egiten dituzten jarduera berberak errepikatzen dituzte, era horretan euren bizitzarako gaitasunak eskuratuz. Nagusiek eguneroko zenbait gauza egi-ten dituzten bitartean, haien berri haurrei ematea jarduera erabilgarria izan ohi da.

Bi urtetik aurrera gutxi gorabehera, hiz-kuntza erabiltzen hasten dira, eta, egin orde, esan egiten dute. Urrats handi hori ekintza eta hitzen eskema sinbolikoan islatzen da. Lehen errealitatea era mimi-koan asmatzen bazuten, orain laguna mundu irreal hori konpartitzera gonbi-datzen dute.

Gurasoek presa handia izan ohi dute seme-alabek hainbat gaitasun eta eza-gutza bereganatzeko; hala ere, garrantzitsua da haurtzaroa luzatzea.

Jolasak

Pilota funtsezkoa izan ohi da jolasean. Harrapaketan jolastea asko gustatzen zaie, baita abestea eta dantza egitea ere, poliki-poliki gorputzeko atalez espresioa lantzen hasten dira...

Jostailuak

- Panpinak eta pelutxeak, eta bultza, zamatua eta hustu ditzaketen autoak, trenak eta kamioiak.
- Pieza handiko buruhausgarri eta puzzle errazak.
- Muntatzeko joko errazak.
- Hondarretan jolasteko ontziak, palak eta moldeak.
- Arotzaren bankua.■



Simon Ibarguren

Zaldiak maite dituen itsasondarra

Itsasondoko seme Ibarreko Simoni betidanik gustatu zaizkio zaldiak, bere bizitzako zaletasuna izan da. Elkarrizketa honetan, zaldien mundu interesgarria gerturatuko gaitu, bere bizipen eta anekdotak kontatuz. Horrela, animalia eder hori hobeto ezagutzeko aukera izango dugu.

Nondik datorkik zaldiekiko zaletasuna?

Betidanik izan diat zaldiekiko afizioa. Gogoratzen diat txikitan zaldia eskatzen nuela eta anaiak bizikleta, eta ez zuan iristen ez zaldirik eta ez bizikletarik. Halako batean, bizikleta azaldu zuan, baina zaldirik ez. Etxean genitian zaldiak lanerako bakarrik ibiltzen zituan.

Eta etxeko zaldiekin probarik egiten huen?

Gainean ibiltzen ninduan, baina etxean ez zitzaiean gustatzen, mina hartuko nian beldurra edukitzen zitean.

Beraz, noiz hasi hintzen hire zaletasunarekin?

Nik Bergarako biltegi batean egiten diat lana. Bertan, baserriko lanabesak, pentsuak, landare osasunerako produktuak... saltzen dizkiagu. Hango bezero batek zaldi bat erosteko aukera eskaini zidaan, eta, horrela, nire lehenengo zaldia erosi nian, bere traste eta guzti. Zaldia Oñatin egoten zuan.

Oñatin zaldientzako zentroa zego?

Orain ez, baina lehen bai. Hipika moduko bat zuan. Hipika hori Arantzazurako bidean zegoan, orain golfeko zelaia dauden lekuan. Bertan, bono batzuei eskerrak, ikastaro batzuk egiteko aukera izan nian, eta horrela hasi ninduan.

Zenbat denbora Oñatin?

Oñatin urte bat egiteko asmoarekin hasi ninduan, baina azkenean bost urte inguru pasatu nizekian, itxi arte.

Eta erositako zaldia?

Zaldia haurdun zegoan emakume bati erosi nioan. Urtebetera saldu egin nian. Orain arte saldu dudan zaldi bakarra duk, baina handik sei hilabetera beste zaldi bat erosi nian Frantziatik, eta Oñatin eduki nian hipika itxi arte. Ondoren, zaldia etxera ekarri nian, eta oraindik bizi

duk. Hogeita hamar urte zeuzkak, baina seguruenik aurtien kendu beharko diat, nahiko zaharra duk.

Ondorengo zaldiak?

Ordizian bizi den zaldi albaria oso laguna diat. Nafarroako Ultzaman lanean zebilela, behor bat kentzeko modua zeukala esan zidaan, eta hartu egin nitxoan. Ondoren, behor horri zein zaldi bota behar nioan pentsatzen nengoela, albaria konturatu zuan behorra ernai zegoela. Eskua sartu eta baieztatu zian umea nahiko handia zela, eta seguruenik mendiko zaldiren batek ernalduko zuela. Umea handia izateak erditzeko garaian arazoren bat sortu zezakeela esan zidaan, eta horrela izan zuan.

Zer gertatu zuan erditzerakoan?

Oso erditze txarra izan zian, eta behorra hil egin zuan. Umea behar baino handiagoa zelako, baina moxala bizirik atera zuan. Moxala biberioz hazi nian, eta aurrera ateratzea lortu nian.

Moxalak haztea gustuko duk?

Betidanik gustatu zaidak moxalak haztea, baina ez duk batere errentagarria. Hasieran, moxalak saltzeko intentzioa edukitzen diat, baina azkenean enkarinatu eta etxean geratzen dituk.

Oñatiko hipikaz gain, beste lekuren batean ibili haiz?

Beti zerbait gehiago ikasi nahian, etxeko behorra Donostiako hipikara eraman nian, eta han, lau urte egon nitxoan. Gauza asko ikasi nitian, baina oso giro ezberdina zegoan Oñatikoaren aldean. Han jendea oso elitista duk, eta zirkulu oso itxia osatzen diate. Lagunak egitea oso zaila duk. Niri pistako lanaz gain, irteerak egitea gustatzen zaidak lagunekin, eta han Donostian zaila zuan.

Bertako monitoreak alemana zuan, oso ona eta asko ikasi nian, baina gainontzearekin harremana nahiko hotza zian.

Donostiako hipikan zer ikasi huen?

Niri doma klasikoa gustatzen zaidak; hau da, pista barruan zaldiarekin jolastea, ariketak egiten ikastea: eskuak aldatu, trosta aldaketak... Horretarako, zaldia oso prestatuta eduki behar duk.

Nire garaian ez, baina orain maila ezberdinak zeudek, eta maila horietako bat lortzeko azterketa batzuk gaintitu behar dituk.

Beste gauza garrantzitsu bat duk zaldia ahotik ere ondo prestatuta edukitzea. Hik eskatzen diokeena eman behar dik beti, eta ez bortxatuta ibili. Apoioak ere garrantzitsuak dituk. Horretarako zaldia flexibilizatuta eduki behar duk, zaldiarekin ordu asko pasatuz.

Astean hiru egunetan ibiltzen nitxoan: asteazken arratsaldeetan, larunbatetan eta igandeetan. Nik ordu gehiago ezin nitian sartu nire lanagatik, eta iritsi ninduan lekura iritsita, konforme nengoan. Lehenengo, bakoitzaren lana duk, eta ondoren hobbyak: nire kasuan, zaldia.

Gainera hango ukuiluetan edukitzea garestia duk. Momentu hartan sozio ez gintuane eta sozioei berdin kostatzen zitzaiguan, eta hori aprobetxatu nian. Orain garestiagoa duk.

Zaldi bereziak behar dituk doma klasikoa egiteko?

Doma klasikoa egiteko, aireak dauzkan zaldia behar duk. Horrela, asteburu batean Alemaniara joan nitxoan. Horretan ibiltzen zuan zalditegi bat ikusi eta zaldiak probatzera. Alemania eta Danimarkako muga behor bat izugarri gustatu zitzaidan, nahiz eta nik zaldia nahi, baina azkenean gustatu eta etxera ekarri nian. Behor horrekin Donostiako hipikan ibili nitxoan.

Behor hori oso aire politekoa duk, Oldenburg arrazakoa, nahiko pisutsua, baina domarako oso egokia. Eskuak asko ateratzen dizkik, eta hori asko baloratzen duk doma klasikoa.

Behorra bi alditan umetu diat arraza bereko haziarekin, intseminazio artifizialaren bitartez, eta bi ume izan dizkik.

Hemen ukuiluan daukaan zaldia duk aipatutako behorra?

Ez, hau lagun batek utzitako espainiar arrazako zaldia duk. Zaldi hau Huelvatik ekarri genian. Zaldi hauek zezen aurrean ibiltzeko prestatzen dizkiate, baina zaldi honek ez zian balio. Hala ere, paseatzeko oso egokia duk.

Zein edade duk egokia zaldi baten-tzat?

Zortzi-hamabost bitarteko urteak dituk egokienak. Edade horrekin zaldia asentatuta eta ibilia zegok, eta ez duk ezerekin beldurtzen. Zortzi urte aurretik zailagoa duk zaldia menperatzea. Orain, bi urteko moxala zaukaat, eta laster hasiko nauk berarekin.

Nire kasuan, hasierako urte horietarako beste pertsona bati uzten zioat heziketa: Tolosako neska bati. Askok ikusiko zenu-ten herritik zehar nire zaldien gainean.

Modu honetara, zaldi gaztea ondo irakatsita dagoenean hasten nauk ibiltzen beraiekin. Heziketa horretan, oso garrantzitsua duk zaldiaren ahoa ondo maneiatzea. Gaizki hasten bahaiz, ondoren zaila duk zuzentzea, mania asko har-tzen dizkiatelako. Gogortuta geratu dai-tezkek.

Ahoan zer ipintzen zaiek?

Hasieran “Filete” izeneko aparatua. Horretara ohitzen direnean, beste aparatu gogorragoak ipintzen zaizkiek, baina hauek zaldiak onartu behar dizkik. Gainera, zaldi bakoitzari bat zegokiok.

Zaldiaren heziketaren zati honetan, erorketa dezente izan dizkiat, gehienbat etxean jaiotako zortzi urteko moxalarekin.

Zaldi bat zaintzeko orduan, zer hartu beharra zegok kontuan?

Garrantzitsua duk zaldiaren osasuna ondo zaintzea, eta albaitari beharrak betetzea. Nire kasuan, txerto guztiak eguneratuta zeuzkaat, eta, horrez gain, bi hilabetetik behin parasitoak kentzen zizkioat, tarteka medikamentuz aldatuz. Hortzak ere errebisatzen zizkieat, urtean behin gutxienez. Perratzailea ere bi hila-betik behin etortzen duk.

Orain dela gutxi, perratzaile ikastaro bat egin diat Fraisoron, eta oso arazo larria ez denean, neronek konpondu zezakeat.

Janari kontuan, etxeko belarrarekin moldatzen nauk, eta negu parterako belar ondua erabiltzen diat. Belarraz gain, goizetan konpuesto pixka bat ema-ten zieat, eta gauetan oloa. Belarra nahi adina.

Denera sei zaldi zeuzkaat: estazio gai-neko belardian behor zaharra bi moxale-kin, eta etxeko lurretan beste hiru zal-diak.

Zaldiak egoteko ukuilua astean behin garbitzen diat, eta zaldiak mangerarekin. Garbitasuna oso garrantzitsua duk.

Zaldiek mikrotxipa zaukatek, zaldi bakoitzaren informazioarekin (txertoak, desparasitazioak...).

Osasun arazorik eduki duk zaldiekin?

Oso gutxi. Lehen aipatu diat, moxala jaiotzeko orduan nola behorra hil zian. Horrez gain, lau urteko zaldia ekarri nia-nean Frantziatik Oñatira, “koliko”-ak iza-ten zizkian, dezente kostatu zitzaidan sendatzea. Beste zaldi batekin, ekarri berritan, gizona edukitzeko asmoarekin, jan-ontzia beti beteta edukitzen nian. Albaitariak ohartarazi zidaan behar zuena bakarrik emateko, eta, azkenean, “Infosura” izeneko gaitza izan zian. Zaldia gogor-gogor eginda geratzen duk. Segituan tratamendua ipini genioan (zaldi gutxi ateratzen dira aurrera gaixo-tasun horrekin), eta bi hilabete geldi egon ondoren sendatu zian. Orain hogei-ta hamar urte zeuzkak.

Egia esan, kanpoan hazitako zaldiek arazo gutxi izaten ditiztek. Barruan hazi-takoek arazo gehiago. Hau ez duk etxean aparkatuta daukaan bizikleta bezala, egunero zaindu beharreko animalia duk.

Etorkizunari begira, zein dituk hire asmoak?

Sei zaldi gehiegi dituk, baina lurrak garbi-tu beharra zeukaat. Gehienez hiru zaldi-rekin ibiltzen natxok, beraz bi zaldirekin nahikoa izango niake.

Moxalak haztea izugarri gustatzen zai-dak, baina daukagun egoerarekin ez duk errentagarria. Bestela, horixe baietz sal-duko nituzkeela moxalak.

Zeintzuk dituk zaldien izenak?

“Herederu 41” Huelvatik ekarritakoa, “Garazi”, “Shiva”(ama), “Libertad”(etxe-an jaiotakoa), “Barracuda”(behor zaha-rra) eta “Daifa”(ongi etorri arabieraz, bi urteko moxala).

Normalean, moxala jaiotakoan, hazita-rako zaldiaren izenaren lehenengo letra errespetatu behar duk moxalari izena jartzerakoan.

Lehen aipatu duk bi moxal intsemina-zio artifizialez ernalduak izan zirela. Garestia duk?

Militarren haziak, esaterako, 200-300 euroan eros daitezkek. Hazi normalak dituk, baina Alemaniako zaldi txapeldun baten hazia nahi izanez gero, 1.000 eurotik gora ordaindu beharko duk, eta dosi bakarra.

Nire ustez, azkeneko urteetan asko ugaritu duk zaldia inguruko baserrietan. Lehen astoa edo mandoa zuan lekuetan, orain zaldiak ikus daitezkek.

Terapia mailan ere erabiltzen direla entzuna zaukaat.

Animalia horiek oso lagungarri dituk elbarritasun edo urritasunen bat dauka-ten pertsonekin, gehienbat umeekin. Bergaratik gora, Elosuan, bazagok zaldi-tegi bat “Venta” izenekoa, eta horrelako terapiak lantzen ditiztek.

Beste bidaiarik egin duk zaldien ingu-ruan?

Andaluzian egiten duten “Rocio”-ra joan gaituk, lau urtean, lagun koadrila bat. Barre asko egiteko lekua duk. Bertako jendea lanerako ez, baina festarako autentikoa duk. Nire zaldia bertara era-mateko tentazioa izan diat, baina han sekulako beroa egiten dik, eta zaldientzat kaltegarria duk. Festa hori ekainean iza-ten duk.

Bertan zaldi asko elkartzen duk, baina akabatu ere. Jendea zaldiekin ibili eta ibili, eta, ondoren, taberna kanpoan uzten dizkiate, egiten duen beroarekin. Askok hil egiten dituk.

“Rocio”-n ikusten duk zaldien beneta-ko sailkapena: jauntxoek zaldiak, jaun-txoak ez direnak, jauntxoek azpitik dau-denak, morroiekin doazenak...

Oso kuriooa duk, nola ibiltzen diren albaitariak, larrialdiko argiekin, batetik bestera. Zaldi afizioa bazeukatek, baina festarako gehiago, eta zaldiak abando-natu egiten dizkiate.

Zaldiei buruzko azokak egiten dizkiate Belgikan, Frantzian... baina horietan tras-teak gehiago saltzen dituk zaldiak baino. Zaldi munduan herrialde aurreratuenak Alemania eta Ingalaterra dituk, ondoren Holanda, Frantzia... eta azkenetarikoa Espainia.

Hemen inguruan zaldiekin irteerak egi-tea oso gustukoa diat: Landetan hondar-tzan zaldiekin ibiltzea, Urbiako zelaietan, Elosua aldean...

Zubietako zaldi lasterketak ikustera joaten haiz?

Urtean bitan joaten natxok, baina zaldi lasterketa baino gehiago gustatzen zai-dak lasterketa aurretik zaldiek egiten duten “paseotxo” ikustea.

Zaldi lasterketetan zaldien itxura baino garrantzitsuagoa duk bere genetika, nork entrenatuta dagoen...

Zaldi batek zenbat balio zezake?

Interneten topatu ditzakek 500 eurotik hasi eta hortik gora. Alde handia egoten duk zaldi horren prestakuntza nolakoa izan den, ibilita dagoen, irakatsia, zein



Urbiko lasterketa batean.



Urbiko zelaietan.



Nere aurreneko zaldia.



Huelvako “Rocio” egunean.

3 galdera motz

den bere genetika... askotan zaldia eros-teko garaian probatzea duk garrantzi-tsua. Jendeak asko begiratzen zioz zal-diaren kartari.

Zaldien kontzentrazioak egiten dituk?

Bai, eta oso ona duk jendea ezagutzeko, beste ekitaldi askotan bezala. Bergaran, Lazkaomendin, Ordizian... azkenekoa Orion izan zuan. Kontzentrazio horietan ibilaldiak egiten dituk. Gero, bazkaldu, eta jende berria ezagutu.

Zaldiak eramateko karro apropos bat erabiltzen diat, eta, horrela, zaldiak bate-tik bestera ibil zitzaieat. Karro horretara-ko beharrezkoak dituk txartela, baimen berezia abereak garraiatzeko, karroaren desinfekzioaren zertifikazioa... Batzuen karroak ikusita, beharrezkoa duk horrela-ko zerbit.

Ertzainek behin bakarrik geratu zidatek, eta dena ondo neukala esan zidatean.

Astean zenbat aldiz ibiltzen haiz zal-dian?

Batez beste hiru bat aldiz. Asteko egune-

tan gutxi, eta asteburuetan gehiago. Gainera, ibilaldi luzeagoak egiten dizkiat. Gaez ibiltzen naizenean, frontalarekin ibiltzen nauk.

Normalean, hiru zaldi erabiltzen dizkiat txandatz. Baina, aukeran, batekin geldituko nitxoake.

Zenbat urte bizi duk zaldi bat?

Nik, esaterako, hogeita hamar urteko zal-dia zeukaat, eta bitamina, aminoazidoak... emanaz bere bizitza luzatzen ari natxok. Baina datorren urtean kendu beharko diat, hogeita hamar urtetik aurrera gutxi bizi-tzen dituk, normalean jendeak hogeita bost urterekin kentzen dizkik zaldiak.

Nola kenduko duk hire zaldi zahar hori?

Animalia hiltzeko garaian, injekzioa era-biltzen duk. Ondoren, hildako animaliak jasotzeko zerbitzura deitzen duk.

Orain beste aukera bat sortu duk. Animalia osasun aldetik ondo egon baduk, hiltegira eraman eta ondoren Cabarcenoko natura-parkera eramaten ditek.■

Zer duk gustuko Itsasondon?

Herri txikiak gustuko dizkiat. Bertako herritarrekin harremana, herriaren lasaitasuna. Hiri handiak ez zaizkidak gustatzen.

Zer botatzen duk faltan Itsasondon?

Ni ez natxok herria asko handitu eta zabaltzeko zalea. Niri kanpoko jen-dea etortzea, bertan lo egin eta herrian ez integratzeko, ez zaidak gustatzen. Herria hazi eta hazi, eta inorekin harremanik eduki gabe. Oso tristea duk.

Inoiz izan duan amets bat?

Ingalaterrako odol garbiko zaldien (pura sangre) zalditegi bat bisitatzea gustatuko litzaidakek. Holandara ere joango nitxoake.

Se tardará unos tres días en dejar expédita la calzada

Un impresionante desprendimiento de tierras corta la CN-1, en Itsasondo



Berriro ere luizia!

1978, 1982, 2012... istoria errepikatzen da

Apirilean izandako euri jasek arazoak eragin zituzten herri sarrerako zonaldean, Jaso lantegiaren inguruetan. Lur eta harri kopuru handiak erori ziren bidera, eta errepidea erabat estalita geratu zen. Ez da mendi zati hori erortzen den lehen aldia, aurrez ere hainbat aldi-tan erori izan baitira lur eta harri zatiak errepidera.

Apirila hilabete euritsua izan zen. Gutxiago edo gehiago, baina egunero egin zuen euria. Negu hotz eta lehorraren ondotik, euriak ez zuen atsedenik hartu, eta hogeita hamar egun euripean igaro genituen. Lehor zegoen lurrak halako ur kopurua irenstean, mugitzen hasi zen, eta luiziak gertatu ziren nonahi, baita Itsasondon ere.

Legorretako noranzkoan, herri irteeran, Jaso lantegira iritsi aurreko malda mugitu, eta lur eta harri kopuru handiak erori ziren GI-2131 errepidera. Menditik eroritako lur eta harri zatiek errepidea eten zuten, eta errepidea luzaroan itxita egon zen ibilgailu zein oinezkoentzat. Ez zen lan erraza izan lur eta harri puskak errepidetik kentzea. Egun, agerikoak dira makinek bidegorrian utzitako arrastoak.

“Berriro ere luizia!” edo halako zerbait pentsatuko zuten herritar askok gertaeraren berri izatean. Malkar gorabeheratsua eta arriskutsua izan da betidanik hura, ez baita halako ezbeharra gertatzen den lehen aldia. 1978ko otsailaren 5ean ere lur eta harri zatiak etorri ziren mendian behera Jaso lantegira iritsi aurreko gunean.

Euri dezente egin zuen egun horretan, eta, konturatzerako, mendi zati handi bat beherantz etortzen hasi zen. Denbora gutxian, harri eta lur zati handiek errepidea estali zuten, eta trafikoa moztu behar izan zuten. Laster garbitu zituzten errepidea eta inguruak errepide zerbitzuetako langileek, baina Itsasondoko udal ordezkariak erabat kezkatuta geratu ziren malkar horren egoerarekin. Izan ere, denbora tarte txikian gertatzen zen bigarren lur jauzia zen hura; urtarilaren 25ean edo 26an ere harri eta lur zatiak erori ziren malda beretik.



Se tardará unos tres días en dejar expédita la calzada

Un impresionante desprendimiento de tierras corta la CN-1, en Itsasondo

San Sebastián (DV). — Un impresionante desprendimiento de tierras ha cortado la CN-1 en Itsasondo, en el término municipal de Jaso. El deslizamiento de tierras ha causado un corte de tráfico de tres días en la calzada.

El deslizamiento de tierras ha causado un corte de tráfico de tres días en la calzada. El deslizamiento de tierras ha causado un corte de tráfico de tres días en la calzada.

El deslizamiento de tierras ha causado un corte de tráfico de tres días en la calzada. El deslizamiento de tierras ha causado un corte de tráfico de tres días en la calzada.

El deslizamiento de tierras ha causado un corte de tráfico de tres días en la calzada. El deslizamiento de tierras ha causado un corte de tráfico de tres días en la calzada.

Desprendimiento en Guetaria

San Sebastián, 27 de mayo de 1982.

El deslizamiento de tierras ha causado un corte de tráfico de tres días en la calzada.

Después a tomar en el tráfico

El deslizamiento de tierras ha causado un corte de tráfico de tres días en la calzada. El deslizamiento de tierras ha causado un corte de tráfico de tres días en la calzada.

El deslizamiento de tierras ha causado un corte de tráfico de tres días en la calzada. El deslizamiento de tierras ha causado un corte de tráfico de tres días en la calzada.

1982n “Diario Vasco”n argitaratutako bi artikulo.



San Sebastián (DV). — Por este lugar se desprendieron las gigantescas piedras y abundante tierra sobre la carretera N-1 en el término municipal de Itsasondo. El desprendimiento, que tuvo lugar a las seis y media de la tarde del martes, ocasionó un colapso en la circulación de esta principal arteria. Ayer por la mañana las brigadas de Obras Públicas trabajaron incesantemente consiguiendo dejar expedita la calzada en sus dos direcciones. En la fotografía de Postigo se aprecia las proporciones de una de las piedras que cayeron sobre la carretera.




Egoeraren larritasunaz jakitun, gutu-
na bidali zioten Udaletik Gipuzkoako
Errepideetako Lurralde arduradunari.
1978ko otsailaren 15ean igorritako
mezu hartan, denbora gutxian gerta-
tzen zen bigarren luizia zela eta, beraz,
edozein unetan halako besteren bat
gertatzeko arrisku larria zegoela oharta-
razten zioten. Oinezkoentzat zein auto-
entzat eta gidarientzat segurtasunik
gabeko zonaldea zela jakinarazten zio-
ten. Aurrez gertatutako luizietako
harriak eta lur zatiak kentzeko egindako
lanek malkarra hondatu samar utzi
zuten, hainbat harkaitz zati kili-kolo
utziz.

Istripu edo arazo larriagorik gerta ez
zedin, zonaldea aztertzeraz adituren bat
bidaltzeko eskatzen zioten Udaletik
Errepideetako Lurralde arduradunari.

Itsasondoko Udaletik egindako eskae-
rari kasu egin zioten, eta adituak etorri
ziren maldaren egoera aztertzeraz.
Hainbat harkaitz zati erortzeaz zeudela
ohartu ziren ikusketa horretan. Adituek
arazo txiki bat ikusten zuten, ordea: har-
kaitz zati horiek kentzekotan, eztanden
bidez izan behar zuen; eztandarik



Itsasondoko Udala eta Sustapen Ministerioaren arteko idatzi trukaketa.



ezean, nekez ikusten zuten erortzeaz zeu-
den harriak kentzea. Hala bada, eztandak
eragiteko lehergailu egokiaren bila ari
zirela zioten otsailaren 17an Udalera bida-
litako gutunean. Lehergailu egokiak lortu
orduko egingo zituztela eztandak oharta-
razten zien ingeniari buruak.

Lehergailuak lortu zituzten, eta eztan-
dak ere eragin zituzten. Lan horiek, baina,
kalte handiak egin zituzten mendiaren
maldan. Euri dezente egiten zuen aldiro,
harriren bat edo beste erortzen baitzen
beti. Ondorioz, arrisku handiko zonaldea
bihurtu zen herri sarrerako zati hori.

Herriarren kexu ugari jaso zituzten
Udalean, malkarraren egoera zela eta.
Halabeharrez, Errepideetako Lurralde
arduradunari beste gutun bat bidali behar
izan zion Itsasondoko orduko alkateak,
1979ko uztailaren 20an.

Malda sendotzeko, egonkortzeko eta ez
mugitzeko hainbat lan egin zituzten, eta
hormatzarra ere eraiki zuten harriak ez
erortzeko. Lan horiekin arazoak konpon-
dutat eman zituzten. Buruko minak hasi
baino ez ziren egin, ordea, lau urte geroa-
go, 1982ko abenduan beste luizi batek
errepidea erabat moztu baitzuen. Aldi

hartan, 20.000 tona arbel harri eta lur
erori ziren malkar beretik, eta errepidea
harriz estalita geratu zen erabat berriro
ere. Harritzarrak eta lurra errekaraino
iritsi ziren aldi hartan.

Lur jauzia goizaldeko hirurak bueltan
gertatu zen. Inguru hartatik igaro berri
zen bizilagun batek guztia ikusi zuen.
Luizia gertatu aurreko minutuetan, gur-
pila zulatu zitzaion, eta autoa geratu
behar izan zuen. Lekuaren arriskuaz
jakitun, malkarraren azpian geratu
ordez, metro batzuk aurrerago egitea
erabaki zuen, eta, eskerrak, minutu
gutxi batzuk lehenago atzean utzitako
malda mugitzen hasi baitzen bat-bate-
an, eta mendia beherantz etorri zela
ikusi zuen bere begiez.

Harri eta lur kopuru izugarria erori zen
maldan behera, bi noranzkoak erabat
estaltzeraino. Errepidea erabat moztuta
geratu zen tarte horretan, eta ibilgai-
luentzako ordezkio bideak bilatu behar
izan zituzten.

Gipuzkoako Errepideetako Lurralde
Ordezkaritzako langileak goizean goiz
hasi zituzten harri eta lur zatiak kentze-
ko lanak. Sekulakoa zen, baina, malda-

tik erori zen lur eta harri kopurua, eta,
gutxienez, bizpahiru egunetako lana
izango zela aurreikusten hasi ziren lan-
gileak.

Tamaina handikoak ziren eroritako
harriak, eta, beraz, harriak errepidetik
kendu aurretik beharrezkoa zen haiek
zatatzea. Horrek erruz luzatu zituen
errepidea garbitzeko lanak.

Bizpahiru egunetan amaitzekoak
ziren lanak asko atzeratzen ari ziren.
Arazoek ez zuten amaierarik: harri ugari
pilatu zen errepidean, eta mendian har-
kaitz zati handiak zeuden erortzeko
arrisku larrian. Errepidera eroritako harri
puskak kentzeaz gain, beraz, malkarrean
erdi erorian geratu ziren harkaitz
zatiak kendu behar zituzten. Harkaitzak
lehertu eta kentzeko, hainbat leherketa
egin behar izan zituzten.

Horrek guztiak arazo larriak eragin
zituen trafikoan. Errepidea erabat itxita
egonik, autoen joan-etorria bideratzeko
beste bide batzuk bilatu behar izan
zituzten. Tolosa aldetik Goierri aldera
etortzeko, adibidez, bide luzea egin
behar zuten gidariek: Alegia,
Abaltzisketa, Larraitz, Zaldibia eta
Ordizia. Mendi bidea izanik, ez zen
baterik egokia kamioientzat, eta horrek
egoera asko okertu zuen.

Aipatu bidetik kamioiak eta pisu han-
diko ibilgailuak bideratzeak kalteak egin
zituen errepidean, eta istripu bat baino
gehiago izan ziren. Sortu berri zen ara-
zoa konpontze aldera, Tolosatik Azpiroz
gainera, Azpiroz gainetik Irurtzunera eta
handik Altsasura bideratu zituzten pisu
handiko ibilgailuak.

Kostaldera joatea ere ez zen lan erra-
za. Beasaindik Zumarragara, handik
Azpeitira, Azpeititik Zumaiara eta
Zumaiatik Donostia aldera joan behar
izan zuten auto gidariek denboraldi
batean.

Azkenean, bederatzi eguneko eten-
gabeko lanen ostean, N-I errepidearen
errail bat zabaldu ahal izan zuten aben-
duaren 21ean. Lanak guztiz amaitu
bitartean, ibilgailuek txandatzuz ibili
behar izan zuten irekitako errail bakar
horretan.

Aurten, beste luizi bat gertatu da
puntu berean. Denboran atzera gertatu-
tako ezbeharrek eta apirilean izandako
luiziak argi erakusten dute Jaso lantegi-
ra iritsi aurretik dagoen gunea ez dela
batere segurua. Mendi zatia oso kalte-
tuta dago, eta ur kopuru handiak jaso
orduko, mugitzen hasten da. Arrisku
gune izaten jarraitzen du, beraz, herri
sarrerako zonaldeak.■

60ko hamarkadan, Phoenixen (Arizona), emakume batek supermerkatuek botatzen zituzten elikagaiak jasotzen zituen egunero, bere 9 seme-alabentzat behar adina elikagai lortzeko. Phoenixeko John Van Hengel izeneko arkitekto jubilatuak istorio horren berri izan zuenean, pentsatu zuen emakume horrek egiten zuena ondo antolatuz gero, milaka kilo jaso eta banatuko zituztela behartsuen artean. Horrela, 1965ean jaio zen munduko lehen Elikagaien Bankua. Handik aurrera, mundu guztian elikagai bankuak ditugu, baita Gipuzkoan ere.



Elikagaien Bankua

rabazi asmorik gabeko fundazio horrek Gipuzkoan sobera egon daitezkeen elikagaiak biltzen ditu, gero gure lurraldean oinarritzko elikadura bermatzeko zailtasunak dituzten pertsona zein familiei laguntzeko asmoarekin. Horrela, Elikagaien Bankuak egunero-egunero hainbat motatako produktuak jasotzen ditu bere biltegietan, Gipuzkoako leku askotatik.

Elikagai horiek bereziki bi modu hauetara banatzen dituzte gaur egun:

Europar Batasunetik jasotzen direnak: azkeneko urteetan, nahiz eta orain kopuruak gutxitu egin diren, Europar Batasunean izaten ziren elikagai soberakinak hartu eta zenbait herrialderen artean banatzen ziren, besteak beste, Elikagai Bankuen bidez. Horrela, Gipuzkoako Elikagai Bankutik, gure kasuan, Itsasondoko udaletxera ekartzen dira, gero gizarte zerbitzuen bidez beharrrak dituzten familien artean banatzeko. Aurten, Itsasondon, horrelako hiru banaketa egingo dira. Hala ere, produktuen kopurua eta barietatea asko murriztu dira.

Bestalde, Elikagai Bankuari batetik eta bestetik ematen dizkieten produktuak edo berak egiten dituen bilketen bidez jasotakoak hilero banatzen ditu udalerriri eta elkarte bidez. Kasu horretan ere helburua berdina da: oinarritzko elikadura bermatzeko arazoak dituzten pertsonen laguntzea. Itsasondok banaketa horretan parte hartzeko asmoa du.

Baina nortzuk dira elikagai horien onuradunak? Gure herrian, oinarritzko beharrrak asetzeko arazoak dituzten pertsonak eta familiak ezagutzen ditugu gizarte zerbitzuetan, eta, normalean, beraiekin lan egiten dugu, beren egoeran aldaketak bultzatzeko asmoz. Oso egoera ezberdinean daude pertsona horiek: batzuek ez dute inongo diru-sarrerarik, eta beste batzuek, berriz, prestazioak edo diru-laguntzak jasotzen dituzte, baina gero arazoak izaten dituzte euren etxeko ekonomia ondo kudeatzeko, hainbat arrazoi-rengatik. Horrela, kasuz kasu ikerketa egiten da. Elikatzeko arazoak dituztenei bideratzen dizkiegu elikagaiak, eta ez soilik baliabide urriak dituztenei. Lehen-tasuna ematen diegu adingabeak dituzten familiei, ahalik eta elikadura egokiena jaso dezaten.

Hortaz, Elikagai Bankuak egiten duen lana oso baliagarria da, eta, momentu gogor hauetan, ia ezinbestekoa familia askorentzat. Horrez gain, aipatu beharra dago, kasu larriak izaten direnean, gizarte zerbitzuak ez garela zain egoten Bankutik banaketa noiz egingo, baizik eta, zorionez, herriko Caritaseko taldearen bidez, elikagaiak erosten direla. ■

Krisi ekonomikoa

Zer da okerren daramazuna krisi ekonomikotik?

Moduren batean jasaten al duzue?

Zer eskatuko zenieke politikariei egoerari aurre egiteko?

Zuen ustez, egin beharreko zer ez dute egiten?



Javi eta Alejandro

Gehien nabaritzen duguna da lana gutxitzea; batez ere, azken urte honetan. Egoera horren errudunak, neurri handi batean, bankuak direla uste dugu; izan ere, gure ustez, dirua ez da desagertu, nonbait ezkutatua dutela uste baitugu. Politikariek ez dute ezer egiten, ez baitute krisia nabaritzen eta ez baitute bizitzeko arazorik.



Eusebio, Lontxo, Miguel, Ana, Jorge eta Jesus

Krisia guztiok jasaten ari gara, batzuk gehiago eta beste batzuk gutxiago. Gauza askoren errudun gara, ez saihesteagatik. Dena lapurtu digute, nahi zutena eta gehiago. Orain, aldiz, gure gain botatzen dute guztia konpondu ahal izateko lanaren pisua, osasungintzan eta hezkuntzan mozketak, zergak handitu eta gehitu...

Guztia guk egin beharra daukagu, nahiz eta dirua dutenak beste batzuk izan.

Irtenbide bakarra ikusten dugu: INDEPENDENTZIA.




15. Ibilbidea

Zerain-Aizpea meategiak-Larraondo-Zerain

Iraupena: 3 ordu.

Ibilbidea:
Zerain-Aizpita Etxea: 75'
Aizpita Etxea-Makinetxe: 30'
Makinetxe-Larraondoko zerrategia: 15'
Larraondo-Zerain: 60'



Deskribapena: Herriko plazatik abiatu, Seguratik Legazpirantz doan errepidera jaitsi, eta ezkerretara hartuko dugu, Aztiria eta Legazpi aldera. 50 bat metro ibili ondoren, errepidea ezkerretara okertzearekin batera, eskuinera goitik behera doan estrata zaharrari helduko diogu. Arane eta lñurrategi baserrien aurretik igaro, zubia gurutzatu, eta errepideari ezkerretara jarraitu ondoren, karobi baten aurretik igaroko gara. Artegi etxearen ondoren, Seguratik Legazpira doan errepidera berriro ateratu, eskuinera hartu Aztiriarantz, eta errepidearen paralelo doan bidetik 2 km egin ondoren, Aizpita etxera (interpretazio zentroa) iritsiko gara.

Trenbideko Makinetxera doan bidea hartu, ezkerretara. Laster, tuneltxo bat pasatuko dugu, eta aurrerago, Makinetxera iritsiko gara. Eraikin horren aurrean beheraka doan bideari segi, eta Larraondoko zerrategira iritsiko gara. Bide nagusiari segi, eta Larraondo baserriera jaitsitakoan, bertara dakarren errepideari behera jarraituko diogu, 400 metrora dagoen Urkulluta bide-

gurutzeraino. Bertan, eskuinera egin, bi erreka gurutzatu, eta ezkerretara gorantz abiatzen den bidea hartuko dugu. 300 bat m gorantz egin ondoren, Barbaris auzotik Zerain herrira doan elizbidera iritsiko gara. Donostia-Arantzazu bidea bertatik igarotzen da (marka zuri-gorriak). Bide horri ezkerretara jarraitu, eta erreka bat igaro ondoren, Sagastibilga Eillorraren ondotik igaroko gara. Handik 700 metrora, Sagastibil baserri ondoan, bertara heltzen den errepideari jarraituko diogu, hurrengo baserriraino, Zirikin baserriraino. Bertan errepidea utzi, eta eskuinera doan bidea hartuko dugu. 200 metrora, erorita dagoen Goenetxe baserria igaro, arrasto zuri-gorriak utzi, eta eskuinera hartuko dugu. Bideari jarraituz, ur depositu zahar baten ondoan, bide bukaerara iritsiko gara. Errekatxoa igaro, eta bertan hasiko den bidezidorrari jarraituko diogu, Zerain eta Mutiloarako ur deposituen eskuinaldetik igarota, errepidera irteteko. Zuzen jarraitu, eta herriko plazara jaitsiko gara. ■



01 Zeraingo plaza




02 Presagain




03 Aizpita Interpretazio Zentroa



04 Trenbidea berrituta



05 Tunela




06 Makinetxe



07 Larraondoko zerrategia



08 Urkulluta



09 GR-34 (Donostia-Arantzazu)



Zeraingo panoramika

10





Historian zehar egon diren birusak

Ezagutzen dugun lehen birusa 1959an azaldu zen. Badirudi birusa hura joko mota bat izango balitz bezala sortu zela. Bere eginkizuna zen beste ordenagailuen RAM memoria guztiz okupatzea. Modu horretan, infektatutako ordenagailuaren errendimendua txikitu egiten zen, eta ordenagailua guztiz blokeatuta gelditzen zen.

Denboraren poderioz, birusak eboluzionatzen joan ziren pixkanaka-pixkanaka. Hala nola, 1972an *Creeper* izeneko birusa sortu zen. Garai hartan, IBM360 ordenagailuak ziren salduenak, eta justu ordenagailu hari egiten zion kalte. *Creeper* birusak mezu bat erakusten zuen: *I'm a creeper... catch me if you can!* (Aihen bat naiz. Ni harrapatzeko gai al zara?). Birus hura saihesteko, munduko lehen antibirusa sortu zen. *Reaper* zuen izena, eta hiru egun pasa behar izan ziren sortu ahal izateko. Gaur egun, birus berri baten konponbidea minutu batzuen buruan sortzen da, programagailuen bitartez.

1981/1982an, lehen MS-DOS sistema eragilea atera zen. Une hartan Bill Gates agertu zen lehenengo aldiz. Bill Gatesek eta bere lan-taldeak programazio errore askorekin atera zuten MS-DOS sistema eragilea. Programazio errore horienagatik,

birusek aukera gehiago dute ordenagailuak infektatzeko.

1986tik aurrera, birusek jadanik ez zituzten ordenagailuak bakarrik infektatzen. Kopiatzeko erabiltzen ziren diskeen bidez ere ordenagailu batetik bestera pasatzeko aukera zuten. Birus horiek .EXE edo .COM fitxategiak ziren. Modu horretan, erabiltzailea engainatzen zuten, fitxategi exekutagarri bat zela pentsatuz.

1995ean, Windows 95ekin, birusek Microsoft Wordeko fitxategietan sartzeko aukera zuten. Horrela, Wordeko dokumentu hori ordenagailu batetik bestera pasatzen baldin bazen, beste ordenagailuak infektatzeko aukera zuten.

Baina ez bakarrik Worden... 1997an Excel bitartez ere infektatzeko aukera zegoen, eta 1998an berriz Accessetik.

1999tik aurrera, Interneten iraultzaren bitartez, birusek infektatzeko beste bide bat ikusi zuten. Hala nola, mezuetan atxikitako fitxategiak. Papa, Melisa, I love You etab... birus famatuak Internet bidez zabaltzen ziren.

Zer egin birusen aurka? Antibirus bat eduki beti instalatuta, susmagarriak izan daitezkeen web orrietan ez sartu eta kontuz korreoarekin edo deskargatutako fitxategiekin. ■

Udazkenean ere, Itsasondo ekinez egina!

Pasa den ekainean egin genuen Itsasondo Ekinez eginaren aurkezpen batzarra, Herri Egunaren baitan. Gure herriaren inguruko hainbat iritzi, arazo, hutsune, indargune, aukera etab. identifikatu eta taldean elkarrekin eztabaidatzeko aukera eman zigun lehenengo batzar hark.

Illo beretik jarraituz, proiektuaren bigarren fasera heldu gara: herriko diagnostikoa egiteari ekingo diogu datozen egunetan. Diagnostiko horretan, hainbat gai landuko ditugu: ingurumen gaiak, gizarte gaiak, parte-hartzearekin lotutakoak, etab. Eta berezitasun bat izango du: herritarren ikuspuntu eta iritzietan oinarritutako diagnostikoa izango da gurea. Itsasondo herritar ezberdinen begietatik nola ikusten dugun jasoko dugu txostenean.

Diagnostikoa egiteko tresna elkarriketak izango dira. Adin, pentsaera, jatorri eta herriarekiko atxikimendu ezberdineko herritarrekin elkartuko da aholkularitza taldea, Itsasondoren eta bertan bizitzearen inguruan zer iritzi duten jakiteko. Horretarako, hirunakako taldetan banatuta, herritarrei elkarriketetan parte hartzeko deia luzatuko diegu. Herritarrekin egingo den moduan, Itsasondoko Udaleko langileen iritzia ere kontuan izango dugu. Haiekin ere elkarriketak egingo ditugu horretarako.


Elkarriketetan, herritarrei hainbat galdera egingo zaizkie: Itsasondok zerbitzu mailan dauzkan beharren, herriko bizitza egitearen garrantziaren, irisgarritasun mailako arazoaren, herriko festen eta beste hainbat gairen gaineko galderak luzatuko dizkiegu. Elkarriketatuak, eroso, herriaren inguruan hitz egitera biltzea izango da helburua.

Arrazoi askorengatik aukeratu da diagnostikoa egiteko modu subjektibo eta kualitatibo hau (alegia, herritarren iritzian oinarritua, eta ez datu objektiboetan), baina, batez ere, prozesuarekin lortu nahi den helburu nagusia da Itsasondoren herritarren parte-hartzea indartzea. Parte-hartzearen oinarritutako udal kudeaketan sakontzera begira, beharrezkoa iruditzen zaigu herritarren iritzia modu zuzenean jasotzea. Gainera, Udalean badira azken urteetan plan ezberdinetan eginiko datuetan oinarritutako diagnostikoak ere, eta, beraz, oraingo saiakera ezberdina izatea nahi izan dugu.

Diagnostikoa burututa, herri batzar bat egingo da ondorio nagusiak aurkezteko, eta ondoren hasiko dira martxan lan-taldea. Lan-taldea irekiak izango dira, ahalik eta herritar gehien biltzea eta parte-hartzea bultzatzea baita gure nahia. ■

Itsasondo ekinez egina!





Udalak kudeatzen dituen lurrak Murumendi inguruan.

Interes bereziko gunoak

- Murumendi Interes Naturalistiko Gunea
- Errio-Gaizurre-Zamatz Kontseko Ekologikoare Aranzategia Gunea
- Lurrak eskuratzeko bideak**
- 2812. urteko Udalak erosi
- 2812. urteko lurre-zaintzarako hitzarmena
- 2812. urteko erosteko aurrekialdia
- Udal jabegetza

Murumendin aurrera**eramaten ari diren ekintzak**

Orain arte aurrea eramandako ekintza guztiak basoaren berreskurapena indartzea izan dute xede nagusia eta horretarako landatutako espezieak autoktonoak izateaz gain bertan garatu beharko litzatekeen habitat potentzialaren arabera aukeratu dira:

01-091 partzela: partzelaren behealdean ametz ilaundunak (*Quercus pubescens*) eta elorri zuriak (*Crataegus monogyna*) landatu dira. Partzelaren goialdean lizar (*Fraxinus excelsior*) haritz (*Quercus robur*) eta pagoen (*Fagus sylvatica*) landaketa taldekatuak egin dira horiek heldutasunera iristean gauduarentzako itzala sortu dezaten.

01-081 partzela: datozen egunetan bertan aurkitzen diren koniferoak erretiratu egingo dira eta hurrengo urte hasieran ametz ilaundunak eta elorri zuriak landatuko dira.

01-082 partzela: partzelaren erdialde eta behealdean ametz ilaundunak eta pagoak landatu dira. Goialdean berriz desbrozaketa lanak egin dira larre eta otadaren arteko mosaiko egitura berreskuratzearren.

01-083 partzela: egungo jabeak koniferoak erretiratu zituen 2012. urterako eta hurrengo urtera begira habitat potentzialaren arabera landaketak aurrera eramango dira, hau da, ametz ilaundunak, pagoak eta elorri zuriak landatuko dira nagusiki.

01-087 partzela: aurreko jabeak koniferoak erretiratu zituen 2012. urterako eta aurtengo neguan Udalak ametz ilaundun eta pagoak landatu ditu elorri zuriekin batera.

01-088 partzela: hurrengo urtean zehar eta behar den heinean, haritz kandudunak (*Quercus robur*), ametz ilaundunak, pagoak eta haltzak landatuko dira nagusiki.

01-869, 01-090, 01-449 eta 01-040 partzelak: gailentzeko lanekin amaitu bitartean bertako landare-dien eboluzio naturala bermatuko da.

01-451 partzela: hurrengo urtean zehar eta behar den heinean pagoak landatuko dira nagusiki.

Udalaren helburua naturaren berreskurapenean aurrerapausoak eman eta pixkanaka inguru honetako lurrak eskuratzen joatea da. Beraz, gisa honetako ekintzetan parte-hartzera animatu nahi ditu herritarrak, bai lur-saltzaile edota lurren zaintzarako hitzarmenak adostuz, guztion artean Itsasondoko ingurune naturala babestu eta indartzea lortu nahi du.

Ez da ahaztu behar hauek epe luzera begira egiten diren lanak direla, egungo generazioaren seme-alabek benetako baso autoktonoak ezagutu eta gozatzea ahalbide-tuko dutenak hain zuen ere. ■

Murumendiko ingurua berreskuratzen

Esan daiteke Itsasondoko Udallerriak ikuspuntu naturalistikotik garrantzizkoak diren altxor ezberdinak gordetzen dituela: erreka-etoak, baso naturalak, zuhaitz mugarratuak eta bertan bizi diren fauna eta flora espezie bereziak. Baina badago horietan aberatsa izateagatik bereziki interesgarria bilakatzen den tokia, Murumendiko ingurua hain zuen ere. Inguru hau, zalantzarik gabe, Itsasondoko natur gune garrantzitsuenetakoa da, bertan biodibertsitatearen kontserbazioaren ikuspegitik garrantzi handiko habitata garatzen baitira: tontorraren inguruko harkaiztiak, larreak eta baso naturalak hain zuen ere. Zoritzarrez, mendeetan zehar emandako ingurunearen kudeaketaren ondorioz balio naturalistiko handiko eremuak ustiatzen eta galtzen joan dira.

Itsasondoko Udalarantz berebiziko garrantzia dauka Udallerriari dagokion ondare naturalaren eza-gutzan, babesean eta kontserbazioan lan egitea eta aipatutako arazoengatik, *Murumendi Interes Naturalistiko Bereziko Gunea* izate-

agatik, inguru honen berreskurapena dauka azken urteetako erronka nagusia arlo honi dagokionez.

Murumendiko errehabilitazio naturalistikoaren lortzeko lanetan duela urte batzuk hasi zen Udalak, baina horretarako funtsezko arazo bati aurre egin behar izan dio hasieratik, lurren eskuragarritasunari hain zuen ere. Izan ere, habitat naturalak berreskuratzeko ekintzak aurrera eramane nahi ziren lur-sailak jabe pribatuaren eskuetan zeuden. Gauzak horrela eta azken urteetan lur horiek eskuratzeko bide ezberdinak jorratuz Murumendiko inguruari dagokion lur-eremu handi bat Udalararen kudeaketapean aurkitzen da. Bide horiek, lurren erosketa zuzena edota jabe pribatu eta Udalararen arteko lurren-zaintzarako hitzarmenak bilatzean oinarritu dira. Azken hauen bitartez, jabe pribatuak bere lur-saila Udalak kudeatu dezan uzten du aurretik adostutako epe eta baldintza jakin batzuetan.

hemeroteca

Andra Mari Festak



Pasa berriak dira 2012ko Itsasondoko Andra Mari jaiak. Gure herriko ama birjinaren eguna ospatzearren ohiturarekin jarraitzeko asmoz, Itsasondoko Udalak zenbait herritarrekin batera egin ohi dituen festa-batzordeetan, euskal kulturaren oinarritutako jai herrikoiak antolatu ditu aurten ere. Urteroko ohiturei jarraiki, honako egitarau hau antolatu zuen batzorde horrek:

- Ama birjina bezperan, jubilatuek trikiti doinuez alaitutako afari goxo batez gozatzeko aukera izan zuten Bizi-Nai elkarteak.
- Ama birjina egunean, berriz, goizean goiz txistulariak herritarrak ohetik altxatzeko ahalegine-tan ibili ziren herrian barrena, goiz eresiarekin batera. Beste behin ere, herriko jaietan txistularien parte-hartzea eskertzeko dela azpimarratu behar da.
- Ondoren, meza nagusiaren ostean, gure herriko sukaldariak prestatutako hamaiketako paregabea dastatzeko aukera izan genuen. Jan-edana alaitzeko asmoz, Zeberio eta Mañukorta bertso-lariek bertso-sorta oparoa eskaini ziguten. Esan behar da, bi bertsolariak ahalegindu zirela jendearen txutxu-mutxuak une batez eteten, nahiz eta euren esfortzuak ez zuen merezi bezalakako fruiturik eman.
- Toka-txapelketarik ere ez zen falta izan aurten-go Andra Mari jaietan. Ondoren, eliza atariko ospakizunak amaitutzat eman, eta etenaldia egin genuen, denok bazkaltzera joateko.
- Bazkalostean, berriz, afizionatu mailako pilota partida ederraz gozatzeko aukera izan zuten Errota pilotalekura azaldu ziren herritarrek. Ikuskizun horretara ez zen jende askorik bildu, eta, hori dela eta, datorren urtera begira, festa-batzordeak birplanteatu egin beharko du pilota partidak egitarautik kendu ala ez.
- Azkenik, eta Andra Mari eguneko ospakizunei amaiera emateko, sagardo-dastaketa izan genuen herriko plazan. Bertan, sagardoaz bul-tzaturik, ez genuen falta izan gazta eta txorixo pintxo ederrak jateko aukerarik.



Orokorrean, balorazio positiboa egiten du festa-batzordeak, baina, hala ere, jendearen parte-hartze eskasa kezkarria iruditzen zaigula ere azpimarratu beharrean gara. Itsasondoko jai guztiak bizirik mantentzea ezinbestekotzat jotzen baitugu festa-batzordean lanean gabiltzanok!

Itsasondoko Festa Batzordea

Urkiko iraileko jaiak 2012



Irailaren 14an, Gurutze Deunaren egunean, hasi ziren jaiak. Meza ondoren, hamaiketakoa, eta eguerdian bazkaria egin zen. Iluntzean, erromeria Ostolaza eta Andonegi trikitilariekin.

Irailaren 15ean, lagun arteko afaria egin zen elkartean. Jangela bete egin zen. Ondoren, Epelde eta Lutxurdio trikitilariekin erromeria goizaldera arte.

Irailaren 16an, igandean, meza, hamaiketakoa eta bazkaria izan ziren lehenik. Jende ugari bildu zen.

Arratsaldean, herri-kirolak izan ziren. Azken urteotan izan dugun ikusle gehien bildu zen, eguraldia lagun.

Aizkoran, Anjel Arrospide eta Joxe Ugarteburu Joxe Mari Olasagastiren eta Mikel Larrañagaren aurka aritu ziren. Lehenengoak izan ziren irabazle, nahiz eta lehia oso estua eta bizia izan zen. Bestalde, Jon Goenatxo Goenatxo III harri-jasotzailer gazteak hiru saio eder eskaini zizkigun, 80ko zilindroarekin, 113 kiloko kubikoarekin eta 90 kiloko bolarekin.

Iluntzean, erromeria egin zen, egun guztian zehar trikitia jotzen aritu ziren Laja eta Mikel trikitilariekin.

Urkiko jaien aldeko saskiaren zozketan, zorteduna Gurutz Olaskoaga izan zen.



Uda kanpaina



Iturri Txiki guraso elkarteak uztailean antolatzen duen uda kanpainak 3 asteko iraupena izan zuen. Uztailaren 2an hasi, eta 20an bukatu zen.

Bertan, batez beste, 15-20 haur elkartu ziren; gehienak txikiak. 4 begirale ibili ziren. Ekintza asko egin zituzten, eta primeran pasa zuten. Besteak beste, igerilekura joan ziren, eta Aramara ere irteeraren bat egin zuten.

Eguraldiak laguntzen ez zienean, jubilatuen egoitzan biltzen ziren, eskulanak egiteko. Eskertzekoa izan zen egoitza erabili izana.

Besterik gabe, datorren urtean ere elkartuko garelakoan gaude.



San Juan Sua



Aurten ere San Juan Sua ospatzeko eguna iritsi eta, urtero bezala, iluntzeko 8ak inguruan sardina eta txorizo jana izan genuen plazan, herriko gurasoen eskutik. 10etako kanpaiekin batera sua piztu, eta sorgin dantza dantzatzera irten ziren dantzariak suaren ingurura. Sorgin dantzaren ondoren, aurraskua dantzatzu amaitu genuen eguna.



Bizi-Nai jubilatutako elkarteak 25 urte

Uztailaren 14an, Bizi-Nai jubilatutako elkarteak 25. urtemuga ospatu zuen. Urtemuga behar bezala ospatzeko, afaria egin zen Bizi-Nai elkartearen bertan, 60 lagun inguru elkartu ziren, giro onean. Egun hura gogoratzeko, oroitarri-plakak banatu ziren. Elkarteari ibilbide luze eta oparoa izan dezala desio diogu.



Oriora ibilaldia

Uztailaren 14an hitzordua. Opor usaina giroan, eta 17 lagun Itsasondoko plazan oso ordu goiztiarretan. Konturatu gabe Itsasondo-Orio ibilaldia klasiko bihurtu zaigu. Bai, aurten 10. urtemuga bete du ibilaldiak, eta, atzera begiratzen badugu, denbora oso arin igaro dela konturatzen gara. Gure ustetan, atzo bertan izan zen, baina argazkiek beste zerbait adierazten dute. Batzuei ilea zuritu zaigu, beste batzuei erori ere bai, eta ez dira gutxi gerri buelta zabaldu zaienak. Baina, beno, aurten ere denok lortu dugu gure helmuga: Itsasondotik abiatu eta Oriora iritsi gara; ez da makala gurea. Ez dugu esango kosta ez zitzaigunik. Batzuok nahi baino gehiago sufritu genuen, baina behin eta berriro egiten jarraitzen badugu, ez dago dudarik benetan ibilaldi ederra dela eta makina bat gozatzen dugula, mendiaz, parajeaz, konpainiaz, kirolaz eta, nola ez, bertan egiten dugun bazkariaren ondorengo festaz.

Urte askorako izan dadila.



Argazki ikastaroa

Ezpainaren 4an hasi zen Fotoetxekok eskaini zigun oinarritzko argazki ikastaroa. 8 pertsonak hartu genuen parte 6 eguneko ikastaroan. Egunean ordu eta erdi egiten genituen. Azken egunean, Idiazabalera irteera egin genuen, argazki ikastaroan ikasitakoa praktikan jartzeko. Hona hemen ikastaroan ikasitakoaren ondorioa...



(lorezaintza gomendioak)

Ziklamena (Cyclamen Persicum)

Nahiz eta neguko landaririk liluragarrienetako bat izan, gehienentzat oso etsigarria da, begien aurrean usteltzen baitaie.

Ziklamenarekin arrakasta izateko, garrantzitsua da landarea egon behar duen lekua aklimatzea. Hasieran, era egonkor batean gela fresko batean eduki behar da, hezetasun handiarekin. Hori lortzeko, landarea daukagun plateraren harriak edo lurra urarekin bustita jarri behar dugu. Zenbat eta tenperatura baxuagoa izan, denbora gehiago iraungo digu landareak.

Zaintza

Argitasun asko behar du, baina eguzkien izpi zuzenetik urrundu dugu. Gustuko du ekialdera edo mendebaldera orientatuta jartzea.

Tenperaturari dagokionez, 7 eta 15 °C bitartean edukiko dugu egunez, eta 5 gradura jaitsi gauez.

Lurra umel eduki behar dugu, baina inoiz ez oso bustita. Ureztatu beti azpitik, bere tuberkulua busti ez dadin. Landarea hazten ari den bitartean, astean bitan, eta, deskantsuan dagoenean (hau da, loreak eman ondoren), gutxiagotan. Gogoratu sasoi hori udan izaten dela. Euri-ura badugu, askoz hobe.

Gaixotasunak

Tenperatura altuak kaltegarriak dira ziklamenentzat. Hostoak horitu egiten dira, eta usteltzen hasten dira. Leku egokian jartzen badugu, ez zaigu horrelakorik gertatuko.

Hostoetan lizun grisa agertzen bada, "botritis" duela esango dugu. Benoncil duen fungizidarekin zipriztinduko dugu.

Bere tuberkulua usteldu bada, seguruenik ur gehiegik hondatu du gure landarea. Lore-sasoi pasatu bada (hau da, deskantsuan badago), kaltetuta dagoen zatia labanaz kendu eta sufreakin hautsezatu.



Maixel Garmendia
Izadia Loradenda. BEASAIN
943 88 14 40



(errezeta)

Entsalada tropikala

Osagaiak:

Letxuga mota desberdinak.
Melokotoia, anana, udarea... almibarretan.
Ahuakatea.
Txatka edo surimia.
Saltsa arrosa.
Olio, gatz, Modenako ozipina.

Prestakuntza:

Alde batetik, frutei almibarra kenduko diegu, eta kubotan moztuko ditugu. Beste alde batetik, ahuakatea zuritu eta barruko hezurra kendu ondoren, kubotan moztu (belztu ez dadin, poto batean ura eta perrexil adar batzuekin jarri).

Plater batean letxuga hostoak jarri, eta frutak jarriko ditugu, txandatuta edota guztiak nahastuta. Ahuakateari ura kendu, eta gainean jarriko dugu, txatka edo surimiarekin batera.

Gatza, olio eta Modenako ozipina bota, eta saltsa arrosarekin estali.



Jose Ignacio Duhau
Rubirena Jatetxea. BEASAIN
943 88 57 60

Oharra



Nagusia 7an Udalak duen etxebizitza errentan ematea

Nagusia 7ko 1. solairuan Udalak errentan emanda izan duen etxebizitza hutsik geratu da, eta errenta arautuko duten oinarriak irailaren 18ko batzarrean onartu ziren.

Gai horretan interesaturik zaudetenok, informazio gehiago eskuratu ahal izango duzue udaletxean.



Kultur Agenda

Urria

- 03 Barreterapia ikastaro hasiera urriak 31 arte. Gaztelekuan
- 13 Mountain-Bike travesia

Azaroa

- 19-25 Euskara astea
- 24 Gaztain jana
- 25 Emakumeen aurkako indarkeria eguna
- 30 Kantu afaria **Adi!** Talo ikastaroa azaroan zehar

Abendua

- 01 Talo jana
- 03 Euskara eguna
- 24 Gabon eguna
- 31 Urte zahar eguna

Telefono interesgarriak



Udaletxea 943 881170
 • Gizarte Langilea
 • Udal Arkitektoa
 • Epaitegia

Haurreskola 943 164831
Herri Eskola 943 887704
Arbel-Aitz Elkarte 943 881339
Lurdes Janari Denda 943 885236
Arrastoa Botika 943 882148
Medikuarenean Txanda Hartzeko 943 805800

Kaxintane Taberna 606 756551
Nautiko Taberna / Izaskun Hotela 943 880012
Izaskun Ileapaindegia 943 160285

Sasieta 943 161555
Traste Zaharrak 943 161590
Taxi (Ordizia) 943 881486

itsasondo.e.o

Herriko Aldizkaria ((18. zk))) Iraila-Abendua 2012

Ale honetan parte hartu dutenak honakoak dira:

Aranzadi Elkarte
 Axier Bazaga
 Belen Mendizabal
 Danel Etxeberria
 Ekaitz Arruti
 Eskolako haurrak
 Erkuden Mendizabal
 Haizea Arruti
 Haurreskolako Hezitzaileak
 Iker Mendizabal
 Iker Uson
 Iturritxiki Guraso Elkarte
 Jose Ignacio Duhau
 Jose Luis Aranburu
 Maite Lasa
 Maixabel Garmendia
 Mikel Mendizabal
 Miren Aburuza
 Nagore Etxeberria
 Rosi Noguera
 Unai Agirre
 Zuberoa Jauregi

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herritik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70
 itsasondo2.0@itsasondo.net

Lege gordailua: ISSN:
 SS-297-2010 2171-5572



**GOGORARAZTEN DIZUEGU
 HURRENGO ALEA
 ABENDUAN IZANGO
 DUZUTELA ETXEAN**

Paper birziklatuan egina